


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko abenduann, Lanbiden izena emandako langabeen kopurua apur bat igo da. Horrela, Donostian **6.513 langabe zenbatu dira (2.868 gizon eta 3.645 emakume), azaroarekin alderatuta 23 pertsona gehiago.**

- Langabezia % **1,7 egin du gora azaroaren aldean.**
- Langabezia % **0,5 egin du gora 2024ko abenduaren aldean.**

Abenduan zehar, langabeziaren bilakaerak antzeko jarrera erakutsi du gizonen eta emakumeen artean. Gizon langabetuen kopurua % 1,5 hazi da, eta emakume langabetuena, aldiz, % 1,8.

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak gora egin du ere, % 0,5 (34 langabetu gehiago). 2024ko abenduarekin alderatuta, emakume langabeen kopuruak %1,1 gora egin badu ere, gizonen langabeziak % 0,2ko jaitsiera erregistratu du.

Nabarmentzekoa da aurreko urteko hilabete beraren aldean langabeen kopuruaren hazkundera 2024ko irailean erregistratu zela azkenekoz.

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 4. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,1 abenduan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2025ko laugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	4,3	6,0	5,1
Donostia	4,7	5,7	5,3
Bizkaia	7,2	6,7	7,0
Bilbo	9,1	7,3	8,3
Araba	5,6	7,5	6,5
Gasteiz	5,8	7,8	6,7
EAE	6,0	6,6	6,3

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 65 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea (Lanbide)	7,1	7,8	9,6
Gizonen langabezia indizea	6,5	6,6	8,2
Emakumeen langabezia indizea	7,7	9,1	11,1
Genero arrakala	1,3	2,5	2,9

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizeak hamarren 1 egin du gora, eta 7,1eko balioa du: % 6,5 gizonen artean eta % 7,7 emakumeen artean (ehuneko 1,3 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko alde
Gipuzkoa	7,8	-1,8
Donostia	7,1	-2,5
Bizkaia	10,4	0,8
Bilbo	12,0	2,4
Araba	10,6	1,0
Gasteiz	11,0	1,4

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEen langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.513	% 100	% 1,7
Gizonezkoak	2.868	% 44	% 1,5
Emakumezkoak	3.645	% 56	% 1,8
Gipuzkoa	28628	% 1,6	% 0,7
EAE	107.434	% 0,9	% 0,1

Azaroarekin alderatuta, Gipuzkoan eta EAEen langabeen kopuruak gora egin du ere, % 1,6 eta % 0,9, hurrenez hurren.

2024ko abenduaren aldean, Gipuzkoan eta EAEen, Donostian bezala, langabeen kopuruak igoera txikiak izan ditu (+ % 0,7 eta + % 0,1, hurrenez hurren).



JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko laugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,0	54,7	56,8
Donostia	57,7	52,7	55
Bizkaia	59,9	50,7	55,1
Bilbo	61,2	48,9	54,5
Araba	63,2	54,3	58,6
Gasteiz	63,5	54,6	58,9
EAE	60,1	52,5	56,2

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko laugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	56,5	51,4	53,9
Donostia	54,9	49,7	52,1
Bizkaia	55,6	47,4	51,3
Bilbo	55,6	45,3	50,0
Araba	59,3	50,2	54,8
Gasteiz	54,9	50,3	54,9
EAE	56,5	49,1	52,6

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



2025eko abenduaren 31ean, adin-tarte guztietan langabetuen kopuruak hazkundea jasan ostean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.308 langabe erregistratu dira Lanbiden (+10 azaroaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.454 langabe erregistratu dira Lanbiden (+14 azaroaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.154 langabe erregistratu dira Lanbiden (+30 azaroaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.094 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+39 azaroaren aldean).
- 25 urtetik beherako 473 langabe erregistratu dira Lanbiden (+13 azaroaren aldean).

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 54,8	% 45,2	-9,5
25 eta 34 urte bitartekoak	% 47,3	% 52,7	5,5
35 eta 44 urte bitartekoak	% 40,2	% 59,8	19,6
45 eta 54 urte bitartekoak	% 44,2	% 55,8	11,7
55 urtetik gorakoak	% 42,2	% 57,8	15,6

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan-merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.


Zehazki, abenduko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala 19,6 ehuneko puntukoa da (21,8 azaroan).

Horren arrazoia izan daiteke adin-tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa-maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin-tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tarteetan) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 42,5ek derrigorrezko ikasketak ditu gehienez. Hala eta guztiz ere, langabeen % 20,7k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,8	%54,5	%55,4
30 urtetik beherakoak	%24,1	%25,9	%24,9
Iraupen luzeko langabezia	%43,9	%44,7	%48,8
Atzerritarrak	%15,9	%20,9	%19,7
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%16,9	%15,8	%14,1
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%20,7	%12,9	%12,1
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%42,5	%51,3	%54,3

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 16,9), Gipuzkoan erregistratutakoa (% 15,8) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa (% 14,1) da.**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Abenduan, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak gora egin du. Testuinguru horretan, **emakumezkoen kontratazioa gizezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen erdia baino gehiago lanaldi partzialekoak dira** (% 55), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 36 baino ez dira mota horretako kontratuak**. Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 19 puntu handiagoa da.

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 13,35 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Abenduan 7.769 kontratu sinatu dira, hau da, azaroan baino **% 8,58 kontratu gehiago** (614 kontratu gehiago).

2024ko abenduaren aldean, 592 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 8,25 egin du gora.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	2.907	%40,6	4.248	%59,4	7.155
Aldi baterakoak	2.130	%39,0	3.338	%61,0	5.468
Mugagabeak	777	%46,1	910	%53,9	1.687
Lanaldi partziala	1.046	%31,3	2.295	%68,7	3.341
Lanaldi osoa	1.861	%48,8	1.953	%51,2	3.814

Kontratu horiekin 5.685 pertsona kontratatu dira, hau da, azaroan baino % 8,06 gehiago (424 pertsona gehiago).

2024ko abenduaren aldean 529 pertsona gehiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 10,26 egin du gora.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.294	%40,4	3.391	%59,6	5.685
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	688	%42,0	950	%58,0	1.638
25 eta 34 urte bitartekoak	666	%44,5	829	%55,5	1.495
35 eta 44 urte bitartekoak	419	%40,6	614	%59,4	1.033
45 eta 54 urte bitartekoak	329	%34,3	630	%65,7	959
54 urtetik gorakoak	195	%34,5	371	%65,5	566
Atzerritarrak	544	%41,7	759	%58,3	1.303

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen **% 20,7 mugagabeak ziren** (%26,4 urrian eta % 23,6 azaroan).
- Sinatutako kontratuen **% 45,7 lanaldi murriztukoak dira** (% 46,7 azaroan). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 70).
- Kontratuen **% 55,1 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte**.
- Kontratuen **% 26,8 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte**. Horietatik **% 65,6 emakumeak dira**.
- Kontratatutako pertsonen **% 22,92 atzerritarrak ziren**. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen **% 58 emakumeak ziren**.

Kontratuak sektore nagusien arabera ¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua nabarmenki txikitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 15,4** sinatu ditu (% 18 azaroan).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 24** sinatzen ditu (% 26,2 azaroan). Gainera **sektore hau da kontratu mugagabeen bolumen handiena sinatu duen bigarren sektorea**, 386 kontratu mugagabe (Beste zerbitzu operatiboetan 545 kontratu sinatu dira).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 32,4 mugagabeak dira** (% 34,4 azaroan)
- Kontratazioaren **partzialtasuna hazi da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 66,2 lanaldi partzialekoak dira (% 61,4 azaroan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 13,2 sinatu ditu** (% 12,3 azaroan).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14,1** (% 14,5 azaroan) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 18** sinatu ditu (% 17,7 azaroan).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 22,1 mugagabeak dira** (% 27,7 azaroan).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 64,9 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 azaroan).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	41 (%2,6)	%92,7	%7,3
Industria	49 (%3,1)	%61,2	%38,8
ostalaritza	386 (%24,0)	%51,6	%48,4
Merkataritza	226 (%14,1)	%39,8	%60,2

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	51 (%3,2)	%29,4	%70,6
Osasuna eta gizarte zerb.	138 (%8,6)	%22,5	%77,5

SEIC - ENPRESAK

Beste Zerbitzu operatiboak	545 (%34,0)	%36,0	%64,0
----------------------------	-------------	-------	-------

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	7 (%0,2)	%100,0	%0,0
Industria	64 (%1,7)	%53,1	%46,9
ostalaritza	790 (%21,4)	%40,6	%59,4
Merkataritza	665 (%18,0)	%31,7	%68,3

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	198 (%5,4)	%22,2	%77,8
Osasuna eta gizarte zerb.	749 (%20,3)	%13,4	%86,6

SEIC - ENPRESAK

Beste Zerbitzu operatiboak	1.019 (%27,6)	%31,7	%68,3
----------------------------	---------------	-------	-------

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2 baino ez dira mugagabeak.

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria, osasun / gizarte zerbitzuen sektorean, Hezkuntza eta SEIC-Enpresak (sektore horietan sinatutako kontratuen % 80,4; % 90,3; % 87,3 eta % 85,6 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, eta osasun sektorean. Gainera, azkenengo honetan, non kontratuen % 52,7 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 87 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak (% 0), industriak (% 31) eta eraikuntzak (% 111) eskaintako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 77 eta osasun-sektoreko kontratuen % 79 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

BESTE ZERBITZU OPERATIBOAK Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (390 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (37 kontr.), higiezin-jarduerak (6 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.382 kontr.), administrazioa publikoa (58 kontr.), beste zerbitzu batzuk (99 kontr.) eta etxeetako jarduerak (286 kontr.).

DSBEaren hartzaileak²


Abenduan zehar **3.500 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (azaroan baino 8 pertsona gehiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- **55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,7 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,5k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30,1 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,6	%1,0	%0,7
20 - 24 urte	%2,9	%2,8	%2,9
25 - 29 urte	%4,4	%5,2	%5,3
30 - 34 urte	%6,5	%7,5	%7,4
35 - 39 urte	%8,1	%9,3	%9,0
40 - 44 urte	%8,8	%10,3	%10,2
45 - 49 urte	%9,6	%11,3	%10,4
50 - 54 urte	%10,5	%11,0	%10,7
55 urtetik gora	%48,7	%41,7	%43,4
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,0	%61,2	%58,4
Batxilergoa	%8,9	%6,9	%6,8
Lanbide Heziketa	%22,4	%18,2	%20,5
Unibertsitatea	%7,7	%4,6	%5,0
Informaziorik gabe	%7,9	%9,1	%9,4
Lanaren osagarritasuna	%21,5	%20,3	%21,2
Oinarrizko DSBE modalitatea	%78,5	%79,7	%78,8
Gizonak	%42,2	%42,3	%42,2
Emakumeak	%59,3	%57,7	%57,8

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Añorga	2.695	29	%1,08
Aiete	14.400	138	%0,96
Altza	20.004	545	%2,72
Amara Berri	29.253	437	%1,49
Antiguo	13.729	140	%1,02
Ategorrieta-Ulia	3.923	66	%1,68
Centro	21.209	337	%1,59
Egia	14.216	342	%2,41
Gros	17.211	272	%1,58
Ibaeta	9.738	129	%1,32
Igeldo	1.081	6	%0,56
Intxaurrondo	15.426	502	%3,25
Loiola	6.057	172	%2,84
Martutene	2.654	81	%3,05
Miracruz-Bidebieta	8.616	279	%3,24
Miramón-Zorroaga	2.370	22	%0,93
Zubieta	292	1	%0,34

²**DSBA:** Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) hilero ematen den prestazio ekonomikoa da, eta oinarrizko premiak asetzeko diru-sarrerak nahikorik ez duten pertsonen eta familiei gutxienezko baliabideak bermatzeko da. Honako hauek jaso dezakete prestazio hori: enplegurik ez dutenak, diru-sarrera txikiak dituzten langileak, baliabide mugatuak dituzten pentsiodunek edo bestelako laguntza eskasak jasotzen dituztenak, besteak beste.